

Jose Migel Barandiaran antieboluzionista maitagaitza eta B.L.-ren «Apologetika apurrak» (1934)*

Kepa Altonaga

Zoologia eta Animalia Zelulen Dinamika Saila,
Zientzia eta Teknologia Fakultatea (UPV/EHU)

kepa.altonaga@ehu.eus

DOI: 10.1387/ekaia.14804

Jasoa: 2015-07-21

Onartua: 2015-11-30

Laburpena: Idazlan honetan berrargitaratu egin da «Apologetika apurrak» deritzon artikulua (1934), *Idearium* aldizkariak plazaratu zuena «B.L.» sinadurapean. Halaber, eztabaidatu egin da Jose Migel Barandiaranen eboluzionismoaren aurreko jokabide bikoitza (publikoa/pribatua), eta nabarmendu ere egin da haren bizitza publikoaren antieboluzionismoa.

Hitz-gakoak: Jose Migel Barandiaran, antieboluzionismo, jokabide bikoitza.

Abstract: In this paper we republish the article «Apologetika apurrak» (= «Rudiments of apologetics»), which appeared in the journal *Idearium* in 1934, signed with initials «B.L.». In addition, we discuss the dual public and private behavior that showed Jose Migel Barandiaran regarding the evolution theory, and we emphasize his anti-evolutionism in his public life.

Keywords: Jose Migel Barandiaran, anti-evolutionism, dual behavior.

1. SARRERA

Euskal Herriari dagokionez ez dugu oraindik darwinismoaren errezepzioaren historiarik, baina badaude lehen hurbilketaren balioa eduki dezaketen liburuak [1, 2]. Berorietan ikusten da darwinismoak jazarpena eta zen-

* Eskerrik beroenak Pruden Gartzia, Sebas Gartzia Trujillo, Joxe Mari Iriondo, Jacinto Iturbe eta Iñaki Sarriugarteri eskaini dizkidaten era askotako laguntzengatik.

tsura pairatu zituela, euskararen trabaz gain. Esan liteke, oso eskematikoki, Euskal Herrian kolektibo ilustratu bi egon direla, bata eboluzionismoaren aldekoa-edo —baina era ezinago epelean—, eta bestea antieboluzionista inekibokoki. Esan nahi baita, eboluzionista euskaldunik egon izan bada, ziurrenez medikuen multzokoa izango zen, eta, ildo beretik, elizgizonak izan dira darwinismoaren aurkari ohikoak.

Jakina, apriorismo hori ez da beti betetzen, eta, kasurako, Armand David (1826-1900) apaiz lazarista ezpeletarra izan da gure lehen eboluzionista [3], eta bestalde antieboluzionistatzat jo dezakegu Maurice Souberbielle (1872-1939) jaun mediku uztariztarra [1: 227-228], zeinak 1935etik aurrera *Osagarriaz* izeneko zutabea idatzi baitzuen *Eskualduna* astekarian, Jean Etxepare (1877-1935) mediku zendu berriaren hutsunea betez. Nolanahi ere, badaude apriorismo horrekiko desbideratze-kasuok baino harridura handiagoa sortzen dutenak: aipa daiteke, adibidez, Piarres Lafitte (1901-1985) apaiza eta euskaltzale handia [1: 182-192], baina ziurrenez Jose Migel Barandiaran «euskal kulturaren patriarka» da adibide paradigmaticoa. Bi-biok antieboluzionista modura agertzen dira euren obra idatzia aztertzean, baina normalean datu hori isildu —edota ezkutatu— egiten da haien prestigioa kaltetu eztearren-edo. Halandaze, ustekabe ederra sortzen da argibide hori aipatzean, bataren zein bestearen kasuan.

Idazlan honetako lehen atalean, Jose Migel Barandiaran hartuko dugu hizpide, eta zenbait jakingarri gehituko dizkiogu bere biografia intelektuolari [1: 199-200; 2: 103-106], nolabait argazki enfokatuagoa lortu nahian. Gero, 1934an *Idearium* aldizkarian B. L. izenpean plazaratutako «Apologetika apurrak» berrargitaratuko dugu.

2. JOSE MIGEL BARANDIARANEN ANTIEBOLUZIONISMOA DELA-ETA

Ezaguna denez, Jose Migel Barandiaran Aierbek (Ataun, 1889-1991) antropologia eta etnografiaren alorrak jorratu zituen batez ere. Leipzigen ikasi zuen, Wundt irakaslearen eskutik, 1914an Gasteizen apaiztu aurretik eta, gero, Europatik makina bat ikasketa-bidaia egin zituen Telesforo Arantzadi antropologoarekin batera: Paris, Kolonia, Munich, Leipzig, Berlin, Holanda, Akisgran eta Tilburg-eko museoak arakatu zituen.

Ohar biografiko derrigorrez labur horretan, giro akademiko batean kokatu nahi izan dugu aita Barandiaran gazte eta moderno hori, bere pentsaera fixista —ahal delarik— elizako esparrutik at kokaturik. Hala ere, bai Jose Migel Barandiaran eta bai Telesforo Arantzadi (1860-1945) biok antieboluzionistak dira eta metodo historikoaren defendatzaileak, metodo hori eboluzioaren hipotesia baino emankorragotzat zeukaten-eta: haien us-tez, datuen bilketa sistematikoa egin behar da edozein jeneralizazioaren au-

retetik. Ezin da ahaztu, gainera, hasiera bateko europar Antropologia-Elkarte gehienek eboluzionismo darwindarra gaitzetsi zutela nabarmenki, eta giro horretan hazitakoak dira Arantzadi eta Barandiaran.

Apaiz ataundarraren antieboluzionismoa agerian utzi aldera, Barandiaranen testu bat aldatuko dugu hona. 1932koa da, *Apuntes de Geología General y la del País Vasco* liburutik aterea [4: 93]. Liburua Gasteizko apaizgaitetik irakaslea izan zen sasoikoa da eta, ez dago esan beharrik, *nihil obstat* dauka. Izatez, *El mundo y los seres vivientes* izeneko epigrafe adierazgarriaren azken atalari dagokio. Epigrafea, Barandiaranen liburuko beste kapitulu batean lehenago azaldutako Laplaceren teoria aipatuz hasten da, eguzki-sistemaren agerpena aurkezteko; hari horretatik tiratuz, geroago «*un accidente, al parecer insólito*» dakarkigu Lurraren baldintza biziarentzako egokiak argitzeko; ostetik, biziaren sorreraz dihardu eta generazio espontaneoaren hipotesia gutxiesten du, eta gainera gehitzen du «*fenómeno vital consciente*» delakoa —hau da, gizakiaren adimena— kausalitate fisikotik kanpo dagoela. Horiek esan ondoren dator laugarren atal hau:

A partir de la era eozoica la vida se desarrolló en una maravillosa floración de plantas y de animales durante largo período de tiempo.

Los documentos paleontológicos atestiguan que muchos grupos faunísticos que los naturalistas llaman especies, dotados de gran variabilidad, han procedido unos de otros mediante lentas transformaciones. Pero esta variabilidad de las especies no ha sido ilimitada. Las transformaciones se han verificado dentro de ciertos límites, y muchos grupos zoológicos han nacido, se han desarrollado y extinguido independientemente unos de otros, sin que hayan tenido relación genética entre ellos ni puedan ser considerados como ramas derivadas de un tronco común. Existen, pues, grupos naturales independientes que en el espacio y en el tiempo han conservado sus caracteres de modo variable. El transformismo, pues, que no puede tener aplicación en este caso, es insostenible. Más, dentro del grupo, las modificaciones han sido numerosas, y han dado lugar a múltiples variedades y especies sistemáticas que han pululado prodigiosamente en las edades geológicas. Todo conduce a pensar que un plan único, diversamente escenificado, ha presidido el desarrollo de la fase orgánica, en el que las especies han hecho su aparición, unas simultáneamente y otras en momentos sucesivos. El hombre ha sido el feliz coronamiento de esta obra grandiosa, como género aparte con rasgos que le separan hondamente de los demás grupos naturales.

Gezurra badirudi ere, pasarte horretako datu guzti-guztiak prozesu ebolutibo baten ondorio modura barik, Barandiaranen ulerkeran «plan bakar» (= *plan único*) baten gauzatze askotarikoak lirarteke, eta era horretara espezie batzuk aldi berean agertuak (= kreatuak) dirarteke eta bestetzuk ondoz

ondoko uneetan agertuak (izatez, badirudi kreazio berezietz ari dela). Hala-ber, transformismoari (= eboluzionismoari) eustezina deritzo ageri-agerian. Areago oraindik, arras kreazionista ematen du, inplizituki bada ere.

Aipagarria da, bestalde, Barandiaranen pasarte hori, kronologiaren aldetik, elizaren arorik antieboluzionistenari dagokiola. Ziurrenez, planteamendu zientifikoez landara elizaren ortodoxiak bere pisua edukiko zuen, une horretan Gasteizko seminario nagusiko zuzendaria zen Barandiaranen pentsaeran. Kreazio-planaren ideia ia hitzez hitz, literalki errepikatuta irakurriko diogu 1935eko artikulua batean ere, Barandiaranek berak zuzenduriko apaiztegiko *Idearium* aldizkarian [5: 142-143]:

Es decir, en los fenómenos que forman nuestro campo visual existe una dualidad profunda. Por un lado el mundo físico con sus tendencias y fuerzas ciegas, necesarias, inconscientes. Por el otro el ser humano, previsor, libre. Este contraste y esta oposición demuestran que el hombre no puede ser un mero resultado de la convergencia fortuita de elementos cósmicos. ¿Cómo es posible concebir la conciencia, la previsión y la libertad surgiendo de una confabulación de energías mecánicas que obran fatalmente conforme a leyes rígidas y necesarias?

Podemos, pues, decir que el mundo no contiene en sí su explicación. Se precisa un ser inteligente y libre, anterior y superior al hombre y a la naturaleza para explicar razonablemente nuestra existencia. Del mismo modo que para formarnos una representación racional de los fenómenos eléctricos hemos de recurrir a un agente (electricidad), de cuya existencia por lo mismo no cabe dudar.

Izan daiteke explizituagoa, baina nekez adieraziko da argiago. Ildo beretik, bere diarioetan-eta egiazta daitekeenez, urte horietan —1930ean hain zuzen— prentsako polemiketan endredatu zen eta hainbat eskutitz antieboluzionista bidali zituen *Heraldo Alavés* egunkarira [6: 737-745], Jose Maria Susaeta doktorearen [7] *Darwin hoy día* artikuluari erantzunez. Oso interesgarria da polemika horren karietara Jesus Altunak dioskuna Barandiaranen diarioen aitzinsolasean [6: 493-494]:

Llama la atención que en esta fecha Barandiaran no hubiera aceptado ya que la evolución de las especies, incluido el ser humano, había dejado ya de ser «teoría» de la evolución y era un hecho admitido por la inmensa mayoría de los biólogos y paleontólogos. Lo que se discutía en el momento en ámbitos científicos no era el hecho de la evolución, sino la mecánica evolutiva, el cómo de la evolución. Habían pasado ya el lamarckismo y el darwinismo y se disputaban la explicación de esta mecánica el neodarwinismo y el finalismo. Pero el hecho de la evolución no admitía duda. A lo sumo muchos evolucionistas creyentes lo que pensaban es que

esa evolución se limitaba, en el caso del ser humano, al aspecto somático de éste y no al psíquico. Otros en cambio, entre ellos Teilhard de Chardin, admitían la evolución total. Claro es que las obras de éste no pudieron ser publicadas, debido a la censura eclesiástica, hasta después de su muerte en 1955.

Pero al final de los años 50, cuando yo conocí a Barandiaran, éste había asumido plenamente la evolución. Es más, al comentarle yo que en las clases del seminario a comienzos de los 50, su compañero del L. Cassiciacum L. de Araviotorre¹ se nos mostraba en las clases como antievolucionista, al menos para los grupos taxonómicos supragenéricos, Barandiaran me respondió: «Araviotorre no salió fuera, se quedó enquistado aquí, en su rincón vitoriano y no se abrió a la Ciencia europea en muchos aspectos».

Aipuaren bigarren pasartean Altunak argiro erakusten digu Barandiaran eboluzionista bat. Hau da, onar daiteke Barandiaranen bizitza luzean zehar aldaketa bat egon zela eta nolabait horren alde mintzo da ere Joxe Mari Iriondo kazetari beteranoa 2010eko elkarrizketa batean [8], zeinean ondoko erantzun adierazgarria luzatu baitzion pausatuta zioten galderari:

Gehien liluratu zaituen elkarrizketa. «Ziurrenez, Joxe Miel Barandiarani egindakoa lehenengoa. Egun haietan prentsan atera zen giza-kiak tximinotik gentozela, eta halaxe galdetu nion: *pertsonok zer gatoz, tximinotik ala Adan eta Evagandik? Grabazioa mozteko eskatu eta hala aitortu zidan: “Zuek diozuen bezala, off the record esango dizut: bai, arbola gainean saltoka ibiltzetik gatoz, baina publikoan ez daukat esaterik, apaiza naiz eta”*».

Iriondoren erantzun horretan ez dago data zehatzik, baina 1967an izan zen Barandiarani egindako elkarrizketa hori [9]. Hortaz, bat dator Jesus Altunak aipatu periodizazioarekin, berrogeita hamarreko azkenak baino georagokoa baita.

Alabaina, Joxe Mari Iriondoren ihardespren horretan badago beste kontu bat, nire ustez munta handikoa dena. Lehen irakurraldian anekdotiko eta irrigarritzat jo daitekeen arren, ohar gaitezen Barandiaranek grabazioa mozteko eskatu ziola eta erantzundakoa *off the record* aitortu, aitormena baitzen izatez, konfesioa. Eta zein da haren bekaturia? Eboluzionista dela?

¹ Leoncio Arabiotorre Ibarrondo (1890-1957) apaiza eta biologoa, 35 bat urtez izan zen Gasteizko seminarioko irakaslea, *Psicología Racional y Experimental* eta *Biología* irakasten [10: 307].

Barandiaran, aitormenak aitormen, eboluzionista al da benetan? Ez nuke nahi eztabaida bizantziarretan murgildu, baina, Barandiaranek berak diosku lañoki «publikoan ez daukat esaterik, apaiza naiz eta». Alegia, badago Jose Migel Barandiaran bat berrogeita hamarretan-edo pribatuki eboluzionista bilakatu omen zena, eta bestalde —eta horixe azpimarratu gura dut— badago Jose Migel Barandiaran publiko bat, «euskal kulturaren patriarka», izan antieboluzionista dena. Ez gaitezen engaina.

Jose Migel Barandiaran edadetu bat ezagutu nuen nik neuk Udako Euskal Unibertsitatean, Iruñean, 1978ko uztail beroan, poliziak German Rodriguez hil zuen udan. Jesus Mari Txurruka irakasleak gorde du Barandiaranek bertan *euskal etnologiaz* eman zigun hitzaldiaren eskuizkribua. Ez dugu oraingo honetan dokumentu interesgarri hori aztertuko, baina bai aipatuko nuke «apaiza» nabarmentzen dela, fededuna agertzen dela alde guztietatik orrialde horitu horietan: «Jainkoa ezagutzeak, gure asera eta azken helburua dela jakiteak, ba-du bere ondorioa: bat, maitetasuna dela gure elkartearen eskarria; bigarrena, geroko zorionaren itxaropena». Hitzaldi-amaiera hori irakurrita, ematen du unibertsitario euskaldunentzat barik euskaldun fededunentzat prestatutako testua dela. Ez du zirrikiturik uzten Barandiaran eboluzionista bat bisualiza dezagun, 1978an. Badago beste testu bat Barandiaranek sasoi beretsuan —1981ean— plazaratu zuena —*Sobre las raíces humanísticas de mis estudios vascos* [11]— zeinean ez baita darwinismoaren inolako zantzurik aurkitzen. Alegia, nire begietarako Jose Migel Barandiaran publikoa bai hasiera-hasieratik eta amaiera arte antieboluzionista suharra izan da, Jose Migel Barandiaran pribatuak bestela pentsa bazezakeen ere.

Konparaketa zilegi balitz, jokaera kontrajarriak ikusiko genituzke izatez antzekoak-edo diren, batetik, Jose Migel Barandiaran eta, bestetik, Armand Daviden kasuetan. Bai bata eta bai bestea apaizak dira, eta biok egin zuten topo darwinismoarekin beraien ibilbide profesionaletan. Badirudi, baina, Barandiaranek aurkikunde hori ostenduta-edo gorde zuen bitartean, Armand Davidek publikoki defendatu zuen, besteak beste, 1888an Parisen egindako Nazioarteko Kongresu Zientifiko Katolikoan, eta hainbat minututako txistualdi eta astrapala jaso zuen, bertan aurkeztu zuen ponentziagatik [2: 31-52; 3: 153-168]. Alegia, apaiza izan arren, Armand Davidek eboluzionismoaren alde egin zuen era eraginkor batean, inplikatu egin zelarik zientzialari gisara. Jose Migel Barandiaranek, aitzitik, isil-gordeka mantendu zuen bere pentsaera berria, ez zen aktiboki engaiatu, eta hori, praktikan, bedeinkaziotzat jo daiteke inguruko antieboluzionismo hegemonikoari. Umetan irakatsi zigutenaren arabera, badaude omisiozko bekatuak ere.

Zergatik publiko/pribatu bikoiztasun hori? Ez nekike erantzuten. Dirudenez, Pio Barojak ere —Jesus Altunak bezalaxe-edo— ezin izan zuen ulertu Jose Migel Barandiaran gaztearen kasua, eta halaxe kontatu zigun,

mozorrozurik izan arren, *El cabo de las tormentas* (1932) eleberrian. Liburu horretako kontakizunetariko bat —*Silencio*— Beizamako krimenaren ingurukoa da eta horri buruzko zenbait ikerketa egingo dituen Ugarte josulaguna aurkezten digu:

El padre Ugarte explicaba en el colegio de Loyola cosmología, geología, paleontología, y al mismo tiempo teología moral.

¿Cómo podía armonizar estas disciplinas científicas con su fe católica? Él solamente lo sabía.

Pio Barojarena irakurri nuenetik, beti pentsatu izan dut Ugarte delako hori Barandiaranen ispilua dela², eta egia esateko Barojaren galde-erantzun berberak dakarzit burura Barandiaranen biografia intelektualak. Nolanahi ere den, ezinago interesgarria litzaziguke ezagutzea Barandiaranen metamorfosia: jakitea noiz gertatu zen zehazki; apurka-apurka gauzatu zen gradualki, ala tanpez izan zen bat-batean; eta zer dela-eta aldatu zen Barandiaranen pentsaera, zerk zuen hartaratu.

3. B.L.-REN «APOLOGETIKA APURRAK» (1934)

Gasteizko Seminarioa 1930ean eraiki zen, eta handik lasterrera bihurtuko zen Espainia osoko ikastetxe katoliko prestigiotsuenetarikoa; izan ere, bertako irakaskuntzaren potentzialtasun, originaltasun eta modernitatearen froga modura aipatu ohi da *Idearium* bihilabetekaria [10]. *Idearium, Revista de investigación y síntesis de ciencia religiosa* 1934-35 tartean argitaratu zen, Jose Migel Barandiaranen zuzendaritzapean, eta denetara 11 zenbaki agertu ziren.

Bibliografiaren arabera [10], *Idearium* aldizkariaren idazle guztiak seminarioko irakasleak ziren: jadanik aipatuta dauzkagun Jose Migel Barandiaran eta Leoncio Aravio-Torre (*sic*), eta bai Fernando Arsuaga, Jesús Enciso, Joaquín Goicoecheaundía, Luis E. Pinedo, Juan Thalamas Labandibar, José Martínez de Marigorta, Jaime de Arámburu eta José Zunzunegui. Ohiko hamar sinadura horiez gainera, bazeuden noizbehinkako lankideak ere, horien artean nabarmendu zirelarik Joaquín Aspiazu josulaguna eta Alberto de Onaindía —Valladolideko katedraleko kalonjea—, eta beste, hala nola, Domingo de Onaindía, Bernardino García de Albéniz eta Jesús Romero. Dena dela, izen-deitura horien artean ez dago bat ere B.L. inzialekin

² Jose Migel Barandiaranek Gasteizko seminarioan *Física y Química, Geología, Paleontología, Prehistoria e Historia de las Religiones* irakasten zituen urte horietan [11: 307].

egokitzen denik eta, hortaz, ezin da zehaztu nor izan zen berrargitaratuko dugun artikulua ezkutuko egilea.

Egile posible horren inguruan gogoetatuz, Bedita Larrakoetxea (1894-1990) apaiz zeanuriztarra otu zitzaigun, inizialen kointzidentzian oinarrituta batez ere, eta kronologiaren gutxi gorabeherako parekotasuna ikusita —1917.ean abadetu zen, Gasteizen—; berorren idazlanetako «hiperbizkaiera» baina, ez da inolaz ere egokitzen hemen aurkeztutako testuaren euskara-moldearekin.

Idearium aldizkariaren helburuak argitzeko aurkezpen-artikuluaren, besteak beste ondokoa irakur daiteke [12: 3-4]:

Vulgarizar los conocimientos de la ciencia religiosa, escanciándolos en el habla popular, en los idiomas populares. Es Dios quien otorga liberalmente el don de lenguas a sus Apóstoles; no vayamos nosotros a cercenárselo.

Hori horrela irakurtzean, batek pentsa dezake euskarak leku nabaria, igartzeko bestekoa eduki zuela *Idearium* aldizkariaren orrialdeetan, baina usteak erdia ustel. Euskarazko artikuluen kopurua ez da testimoniala izatera ere iristen —*el número de artículos en euskera es testimonial* [10: 27]—, bat eta bakarra agertu baitzen, hain zuzen hemen berrargitaratuko duguna: «Apologetika apurrak» [13]. Titulua gorabehera, ikusiko duzunez artikuluaen mamiak gorago aipatu dugun kreazioaren plan bakarraz dihardu beste behin, eta hori dela-eta, uneren batean pentsatzera iritsi naiz izenpearen B. hori nori-eta Barandiarani berari dagokiola, ezizenen batez moztortuta-edo. Ematen du seminaristentzako prediku apologetikoa zela, beharbada pulpitutik irakastekoa.

Kreazioaren plan bakarraren ideia errekurrentea da *Idearium* aldizkarian, Barandiaranen artikuluetan behintzat. Aipatu dugu lehenago (gogoratu goiko [5: 142-143]), eta beste pasarte bat ekarriko dugu orain [14: 54-55]:

Para saber, pues, qué conducta debe seguir el hombre en este mundo, se precisa conocer el fin para el que se halla destinado, o el plan a que obedeció su aparición sobre la Tierra. El ideal humano está en ajustar la vida a ese plan. Todo lo que sea apartarse de él es deshumanizarse.

PLAN, es decir, intento o designio ideado por un entendimiento y acariciado por una voluntad; puesto que el hombre, ser inteligente y libre, no pudo ser elaborado por las energías o fuerzas, ciegas y necesarias, del mundo físico. Pero en la formación de ese plan el hombre no ha tenido parte. El hombre no fue llamado a consulta para fijar cuál había de ser su fin y cuáles sus funciones. El plan surgió exclusivamente del en-

tendimiento y de la libre voluntad de Aquel que hizo al hombre. He ahí, pues, como la *religión*, es decir, el *reconocimiento* de que el hombre depende de un Ser inteligente y libre, extramundano, superior y anterior al género humano, principio y fin de todas las cosas, viene a ser la norma natural de toda actuación humana, y sirve, por lo tanto, de base al orden moral. Sin esto no tiene sentido la vida. Y sólo a la luz de ese reconocimiento o religión puede y debe, no sólo desarrollarse, sino también valorarse la conducta del hombre. Quien procede de otra suerte, marcha al azar, sometido a las mil sugerencias que le harán cambiar de ruta en cada momento.

Pasartean aurkitutako letra larriak eta etzanak jatorrizkoan bezalaxe gorde dira. Pasarte honetan era landu eta nahikoa jaso batean aurkeztu zai-gun ideia ia bera irakurriko duzu euskarazko artikuluaeren hasieran, baina esateko modu askoz ez zabarragoan bai ostera primitiboagoan: erdaraz mila eta bat biderrez adierazi duten hori, euskarara ekarri dute lehendabizikoz-edo. Hortik letorke, ziurrenez, «Apologetika apurrak» horren estilo simple, trauskil eta, oroz gain, boluntarista.

«Apologetika apurrak» gipuzkeraren moldean dago idatzita eta, egia esateko, ez du inolako zailtasunik, ez sintaxiari eta ez lexikoari dagokiela, izan ere, gehienetan testuan bertan argitu baitira problematikoak izan zitezkeen berbak: *aztuntasun-indar* (= grabitatea), *gaudi* (= mundua), *eredu-orri* (= plana), *naimen azke* (= libre albedrío), *edesti* (= historia), *ludi* (= Lurra), *mala* (= gradu), *otz bero* (= temperatura), *izarbel* (= planeta), *aizedi* (= atmosfera), *errañu* (= izpi). Deigarria suertatzen da artikuluan zehar hain sarri agertzen den grafia-bikoiztasuna, esaterako, *askatasun* eta *azkatasun*, *edesti* eta *adesti*, edota atmosfera esateko *aizedi* (7 biderrez) eta *aizadi* (4 biderrez). Deigarria da, halaber, testu garbizale honetan *oxigeno* eta *hidrogeno* aurkitzea eta ez harrobitiko ordainik.

Badago egin gurako nukeen azken iruzkin bat. Ezin izan dugu zulatu «Apologetika apurrak» artikuluaeren egiletzaren misterioa, baina azaleko azterketa honek erakutsi duenez, badirudi egilea apaiz ataundarraren humus berean ernarazi eta hazia dela, eta arnasa ere atmosfera berean hartu zuela, egilea ez bazen Jose Migel Barandiaran bera izan.

Besterik gabe, irakurri ondoan «Apologetika apurrak», Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren «Liburuklik: Euskal Liburutegi Digitala» web orritik jaso duguna <http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/28438> estekan, Vitoria-Gasteizko Elizbarrutiko Seminarioko Bibliotekaren aldizkariaren atalean.

Apologetika apurak

I

GIZON guztien iritziak ez dira berdiñak. Gizon guztien bizikerak eta oiturak ere ez dira berdiñak.

Eta berdiñeztasunik aundiena, bestelakotasunik nabariena, ondo begiratzen ba-begu, ontantxe arkituko degu: batzuek Jaungoikorik ez dala diotela, ta besteak bai; eta oiek Jaungoikoaron legepean bizi dirala, ta aiek ez; batzuen irizpidea ta bizi-bidea Jaungoikozkoa dala, ta besteena Jaungoikorik gabea. Ontaxetik datoz gizonen arteko berdiñeztasunik eta bestelakotasunik aundienak, ontaxetik gizarteko asafébiderik gogorénak.

Bañan ba'da Jaungoikorik. Eta gizartean gizon azaldu nai ba-degu, egi oni egokitu bear diogu gure irizpidea, ta egi ontatik datozen ondorengoai buruz eratu gure bizikera guztia.

Mundua, gizona, Jaungoikoa, Jesukristo. Ofa or nai-ta nai-ez ondo ezagutu bear ditugun lau gauza; lau gauza oien befi garbirik gabe bizi ba-gera, aruntz

eta onuntz ibili ta ez degu giza-bidean ezer onik egingo; txoriak eta abereak bezela ibili besterik ez; ezaguerarik ez duten txoriak bezela ibili ta adimen-argirik ez duten abereak bezela jan ta lo.

.....
Bañan guk ba'degu adimen-argi; guk gizonok ba'degu ezaguera. Eta ba'dakigu Jaungoikorik ba'dana. Adimen-argiak digu erakusten; gure ezaguera dagokigu ori esaten. Añia gora jaurti-ta gero luñera erortzen ikusten degunean, añia luferantz darakañen aztuntasun-indaña begiz ikusi ez añen, ba'dakigu an olako inda'rik ba'dagona.

Era berean, Jaungoikoa begiz ez ikusi añen, mundua ta gizona begiz ikustea naikoa du adimen-argiak, mundu edo gaudiaren ta gizonaren egile-eratzale adimendunik, Jaungoikorik izan bear duala eteratzeko.

II

Ori obeto ulertzeko, mundua ta gizona nola egiñak dauden ikusi bear degu lenengo.

Mundua, gaudia, ez dago nolana egiña; ondo asmatu-ta baizik. Asmoz, ta eredu-oñia aũfean euki-ta egindako jauregi edeña dirudi alde guztietatik. Gaudian dana egoki dago; dana bere lekuan. Tramankulu edo makina batean bezela. Tramankulu a'riga'ria da gaudia. Eta tramankulu a'riga'ri o'fetan gu gizonok zati bat, kurpil bat besterik ez gera. Bañan ez beste edozein kurpil bezela. Ba'ditugu guk gaudiko beste

gauzak ez bezela, bi nolakotasun berezi, bi eratasun berezi: adimena ta azkatasuna; adimena ta naimen azkea. Gaudiko gañerako zati guztiak, beriz, ez azkatasun dute ta ez adimen.

Gaudiaren adestian, ordea, munduaren istorian, alegia, atzokoa da gizona. Milaka ta milaka urtetan or ibili izan da gaudia izar-arteak zear, kurpil-ibili izugarian, gizona lur-azalean sortu baño ondotoz lenago. Beraz gaudiko beste gauza guztiak adimen ta azkatasunik gabeak ba-dira, nork sortu zuan gizona adimen ta azkatasundun? Nork eman zion adimena ta askatasuna gizonari?

III

Ikusi dezagun oraindik sakonago gaudia nola egiña dagon.

Gaudi guztia, zatiki berdinez egiña dago. Zatiki berak arkitzen dira gaudi-zati guzti-guztietan. Bañan zatikiok ez daude gaudian nolana sakabanatuak; guztiok alkañi lotuak daude, tramankulu baten kurpilak bezela, danok alkañi lotuak, eta bakoitzaren ibili bereziz guztion artean ibili aundi ariñari bat osatzen dutela. Beraz gaudia, ezin zenbatu ala zati ta zatikik osatua izan añen, dana asmo baten pean egiña dago, dana eredu bati jañaikiz eratua.

Ludia—geologilariak diotenez—eguzkiari galdutako puska bat da. Eta eguzkiarengandik zatitu-beñian, ludia, eguzkia bezelaxe, gori-gori zegon, sutegian dagon burnia bezain gori, *Altos Hornos* diralako

labe aundietako burni-salda bezain urtu ta gori. Eta ba' du ludiak oraindik bere baitan lengo goritasun afen aztarnarik. Aztarna garbirik; baigafi ezin-ukaturik.

— Garai artan ezin bizi zitekean ludian gizonik. Ezta gorputz-bizidun ezertxorik ere. Izotzaz gañetiko zainbait mila malako beroa zan orduan ludian. Eta ez da eun malaz gorako berotan luzaroan bizi ditekian bizidunik bat ere. Garai artan beraz ez zan ludian gizonik. Gerora ordea, or ageri zaigu gizona ludiko lur sendo guztietan bafeiaturik. «Gero» onen ta «lenago» afen bioen artean sortua degu, beraz, gizona ludian.

Orain galde bat: Nork ekaña da ta nola, ludiko antzeztoki onetara, gizona?

Bañan ikusi dezagun lenago nolako baldintzak bete bear izan diran gizona ludian bizi al izateko.

Izan zitekean ludian izotz-mala baño befeun malaz beragoko otzik; baita asko mila malaz goragoko berorik ere. Bañan gizonok, izotz-mala baño askoz beragoko otzetan ezin bizi giñezke; ta mala ori baño irurogei edo larogeiz goragoko berotan ere ez. Ta ain xuxen, bi oen bitartekoa izan oi da, ludian izan oi dan otz bero gora-bera guztia... Ain xuxen gizonok bear bezela-bezelakoxea.

Gure ludi au izan zitekean, baita, dan baño txikiago ere;—Merkuri izarbela Ludi baño txikiagoa da—. Bañan ludia dan baño txikiagoa izan balitz, etzuan aizediari eusteko indaño izango ta aizediak

iges egingo zion. Aizedirik gabe, beřiz, ezin bizi izango giñan bizidunok... Bañan, ain xuxen, ba'du ludiak aizediari eusteko aunditasunik eta indařik asko, ta ořela ederki bizi diteke gizona ludi-gañean.

Ludia ba'zitekean berez aizedirik gabea ere— ilargia ere aizedirik gabea da—; izan zezakean baita bestelako aizedirik ere—oxigeno ta nitrogenorik gabea alegia—. Bañan guretzako zorionez, ludiak ba'du aizadi; ta ain xuxen, guk bear bezelakoxea izan ere: oxigeno ta nitrogenoduna; ta ořixe eskefak da bizi ahal gizona ludi-azalean.

Ludiak izan zezakean, baita, gaur duan baña aizadi ariñagorik, xareagorik, idikiagorik ere; eta orduan emen elduko zitzaizkigun, aizadiak zear, beste eřaņu osasungariakin batean, eguzkiak dariozkin eřaņu ilgariak ere, eta ementxe il bear izango zuten ludian diran bizidun ta bizi-sorkari guztiak... Bañan, ain xuxen, gure aizadiak duan trinkotasunak ez diete guganaño eltzen uzten eguzkiaren eřaņu ilgariak; bai, ordea, ain xuxen, eřaņu ongariai.

Ludia izan zitekean, biribil-biribil, bat ere sako-nik gabea. Eta orduan ludi-azal guztia urez estalia egongo zan. Bañan ez dago ala. Ludiak, bere edestian, gora-bera asko izan ditu. Lertze ta eztanda ta luřikara asko gertatu izan dira ludiaren edestian. Eta gora-bera oien artean, bizkařa atera zaio ludiari alde batzuetan; kolloa sartu beřiz beste batzuetan. Eta ořela ba'du ludiak bere azalean sakon-une; amařetan zazpi, bederen, sakon-une da lur-azala; ta antxe dago

baturik ura. Ba' du baita gain-une ere; amafetan iru edo, gain-une, garai-une, legor-une da ludi-azala; ta gain-une ontan bizi da gizona. Ludi dana berdin izan balitz, ludi-azal dana itxaso izan balitz, ezin bizi izango giñan, ito egin bearko genduan.

Makiña bat baldintza bete bear izan dira, beraz, gizona ludi-gañean bizi al izateko. Bizidun, adimendun, askatasundun izaki afigafi au ludi-gañean bizi al izateko, makiña bat baldintza, bai, bete bear izan dira ludian. «Bada-ezpada» itsuren batez bete ote-dira? «Ala-bear» esturen batez? Bada-ezpada itsuz, ala-bear estuz ez da inoiz olako afigafirik gertatzen; ezin gertatu diteke.

Bada-ezpada itsuak ezin dezake egoki eratu gauza nasturik. Ala-bear estuak ezin dezake sortu askatasunik. Kateak ez du askatzen; kateak lotu egiten du. Ilunak ezin dezake argirik egin. Adimen-argirik ez duanak, ez dezake sor ezer adimen-argidunik. Gizona baño gutxiago danak ez dezake sor gizonik. Makinak ez du egiten gizonik; gizonak egiten du makina. Beraz gizonak gutxienez bera bezain adimendun askatasundun dan bati zor dio bere izatea. Gaudian diran gauza guztiak ez dira gizona aña, ez dira gizonik txikiena beste. Gaudiaz beste norbait du, beraz, gizonak bere egile. Eta norbait orixe da guk Jaungoikoa izen-esaten dioguna.

B.-L.'k

4. BIBLIOGRAFIA

- [1] ALTONAGA, K. 2006. *Etxepare, Aldudeko medikua*. Euskaltzaindia-UPV/EHU, 333 or. (ikus: http://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/66692.pdf).
- [2] ALTONAGA, K. 2010. *Darwin geurean*. Pamiela. 125 or.
- [3] ALTONAGA, K. 2001. *Armand David, pandaren aita*. Elhuyar. 251 or.
- [4] BARANDIARAN, J.M. 1932. *Apuntes de Geología General y de la del País Vasco*. Imp. del Montepío Diocesano. Vitoria. 127 pp.
- [5] BARANDIARAN, J.M. 1935. «Ideas y hechos de nuestro ambiente». *Idearium, Revista de investigación y síntesis de ciencia religiosa*, 7 (Marzo-Abril): 140-162. (Ikus: <http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/28438>).
- [6] COLECCIÓN SARA, n.º 6 TOMO II: *José Miguel de Barandiarán. Diario Personal volumen I (1917-1936). Desde los primeros trabajos científicos hasta el inicio del exilio*. Barandiaran Fundazioa. 2005.
- [7] AZCONA J.M. eta R. HERRERO: «Susaeta y Ochoa de Echagüen, José María». <http://ceies.cchs.csic.es/?q=content/susaeta-y-ochoa-de-echag%C3%BCen-jos%C3%A9-mar%C3%ADa> (2015-06-10ean kontsultatua).
- [8] UROLA KOSTAKO HITZA, 2010: «Joxe Mari Iriondo: «Euskara erabili izan dut beti arma bezala»». <http://uztarria.eus/aktualitatea/1269247466> (2015-06-10ean kontsultatua).
- [9] IRIONDO, J.M. 2015. Komunikazio pertsonala, mezu elektronikoz (2015-06-19).
- [10] RIVERA, A. & J. de la FUENTE. 2000. *Modernidad y religión en la sociedad vasca de los años treinta (Una experiencia de sociología cristiana: Idearium)*. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. 316 or.
- [11] BARANDIARAN, J.M. 1981. «Sobre las raíces humanísticas de mis estudios vascos», 343-352 in *I Semana de estudios de Historia Eclesiástica del País Vasco. Homenaje a D. José Miguel de Barandiarán y D. Manuel de Lecuona*. Facultad de Teología. Vitoria.
- [12] ENCISO, J. 1934. «¿A qué venimos?». *Idearium, Revista de investigación y síntesis de ciencia religiosa*, 1 (Marzo-Abril): 1-4. (Ikus: <http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/28438>).
- [13] B. L. 1934. «Apologetika apurrak». *Idearium, Revista de investigación y síntesis de ciencia religiosa*, 2 (Mayo-Junio): 107-112. (Ikus: <http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/28438>).
- [14] BARANDIARAN, J.M. 1935. «Ideas y hechos de nuestro ambiente». *Idearium, Revista de investigación y síntesis de ciencia religiosa*, 6 (Enero-Febrero): 53-67. (Ikus: <http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/28438>).